

BASKEPENSIONES ERRENTA FINKOA EPE LABURRERA GAPI



INBERTSIO POLITIKA

Inbertsio-profil oso kontserbadorea duten pertsonentzako plana da. Batez ere errenta finkoan inbertitzen du. Inbertsioen batez besteko iraupena 3 urtetik beherakoa izango da.

2020/01/31ra Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa**	Urtekoa*	Urte 1	Urte 3	Urte 5	Urte 10
%0,31	%0,06	%0,31	%0,71	%-0,32	%-0,72	%0,48

*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.

2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014
%0,31	%0,55	%-1,42	%-0,66	%-1,14	%-0,85	%1,54

**Iraganeko errentagarritasunek ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

2020/01/31ra Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte**	%0,51
Lurrunkortasun 3 urte**	%0,58


**Epealdiko eguneroko hegazkortasuna edo azken aldiz inbertsio politika alda zenetik, epe hori, laburragoa balitz.

Errenta finkoko zorroaren egoera

Iraupena	1,96
% Kreditu erakusketa	%66,71
Batez besteko rating-a	BBB+

EZAUGARRI OROKORRAK

Ondarea:	197.384.897,73
Komisioak guztira:	%1,00
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenboltso Komisioa:	%0,00
Arrisku-profila:	Baxua
Inbertsiorako gutxieneko epea:	-




HILEKO IRUZKINA

Urtarrila nahiko hilabete aztoratua izan da finantza-merkatuentzat. Iran eta Estatu Batuen arteko tentsio gorakadarekin hasi genuen urtea; geroago, egoera lasaitu egin zen, baina barealdiak ez zuen asko iraun, koronabirusak eragindako zalantzek berriz aztoratu baitzituzte inguruak. Birus-agerraldi honen epizentroa Wuham (Txina) da, baina mundu osoa dago beldurra airean gaixotasun honek izan dezakeen garrantzia eta hedapena dela eta. Urtarrila amaitu da, baina oraindik gaixotasunak eragin ditzakeen azken ondorio ekonomikoen inguruko zalantzak hor dirau. Oraingoaren antzekoak izan daitezkeen epidemia gertaerei esker, beheraldi ekonomiko neurritsua aurreikusten da; gainera, jardueraren gorakada batekin hobetu ahal izango litzateke, beraz, azkeneko ondorio garbia txikia izango

litzateke. Aipatu osasun-alertak urtarrileko azken egunak markatu dituen arren, hilabete zehar egon dira beste albiste batzuk ere: alde batetik, AEB eta Txinaren arteko eta, bestetik NAFTAko herrialdeen merkataritza-hitzarmenak sinatu dira; AEBetan hauteskunde primarioetarako lehen urratsak eman dira; Europako Banku Zentralaren estrategiaren berrikusketa ireki da; Brexit-a gauzatu da; Txinako likidezia-injekzioa, eta oro har, urteko azken hiruhilekoan enpresa-emaizten argitalpenetan albiste onak egon dira. Dirupolitikari dagokionez, EBZ, BoE eta BoJ-ek aktiboak erosteko dituzten programei eutsi die. FEDek ere tasak dauden bezala utziko dituela eta altxorren letrak erosten jarraituko duela jakinarazi zuen, gutxienez, urtearen bigarren hiruhilekoan zehar, epe laburrerako likidezia

bermatzen jarraitzeko. Azkenik, makro eremuan, AEBetan manufakturaren ISM aurreikusitakoaren oso azpirik geratu zen eta, Eurogunean, pixka bat hobetu zuen arren, oraindik kontrakzio mailetan kokatzen zen. BPGari dagokionez, Euroguneak urte arteko tasaren % 1eko igoera izan zuen, analistek aurreikusi baino hamarren bat gutxiago; Estatu Batuetako ekonomiak aldiz, urteko tasaren hiruhilekoan % 2,1eko igoera izan zuen, aurreikusten zena baino hamarren bat gehiago. Merkatuetan, ziurgabetasun-gune nagusietan aurrerapenak egon diren arren, Brexit-a edo merkataritza-gerra adibidez, koronabirusaren agerraldiak Txinako eta mundu mailako ekonomian eragin ditzakeen ondorioekiko kezka nabarmendu egin da burtsako indize nagusietan. Europako burtsetan, Eurostoxx-ek

% 3 inguruko jaitsiera batekin amaitu zuen hilabetea. Aldiz, indize amerikarren portaera hobeia izan zen: Dow Jones % 1 inguru jaitsi zen, S&P 500 ia-ia berdin mantendu zen eta Nasdaq-ek ia % 3ko igoera izan zuen. Halaber, koronabirusak sortu berriak diren merkatuei eragin zien gehien, mundu mailan % 5 inguruko beherakada jasan baitzuten. Errenta finkoan ordea, koronabirusak eragindako ziurgabetasun handiena, zor subiranoaren errentagarritasunetan beherako mugimendu bat babesten zuen, bai Europan, bai AEBetan. Bestalde, kredituak diferentzialak areagotu ditu. Eta azkenik, dibisetan, babes-dibisa tradizionalen erosketan zuhurtzia ere islatzen zen, yena edo dolarra bezala, asko indartu baitziren.



Dokumentu honen xedea informazioa ematea da eta inola ere ez da, ez kontratu-elementua, ez gomendioa, ez aholkularitza personalizatua, ez eskaintza, eta ez eskara. Dokumentu honek ez du ordetzen edozein inbertsio erabaki aurretik legez kontsultatu behar den informazioa; legezko informazioa nagusitzen da edozein desadostasun izanez gero. Inbertsioak merkatuen gorabeheren mende daude, eta baloreak eta beste finantzatresna batzuetako inbertsioetako berezko arriskuak lotuta; horregatik, Funtzaren eskuratzeko-balioak eta lortutako errentagarritasunak gora nahiz behera egin lezakete, eta litekeena da inbertsioleak hasieran inbertitutako zenbatekoa ez berreskuratzea. Funtzaren legezko informazio-dokumentu guztiak (IFD, liburuxka, aldizkako txostenak, etab.) www.kutxabankgestion.es webgunean, enfitate komertzializatzaileen webgunean eta CNMVren erregistroetan kontsultatu daitezke.

BASKEPENSIONES ERRENTA FINKOA EPE LABURRERA GAPI

BASKEPENSIONESEN ONURAK:

- Aurrezteko finantza-tresna, zure etorkizuneko pentsio publikoa osatzen laguntzeko.
- Nahi duzun eta ahal duzun moduan aurrezteko malgutasun osoarekin.
- Inbertitzeko politika desberdina duten Baskepensiones desberdinen artean zure aurrezkoa askatasunez mugitzeko aukera, zure profilaren arabera hobeto egokitzeko.
- Konfiantza Kutxabanken. Epe luzerakoak izan daitezkeen eragiketetan garrantzitsua da.
- Onurak Kutxabankeko beste produktu batzuetan (gordailuetan, maileguetan, eta abarretan).

Eta gainera, banakako BGAE denez,
PFEZaren Zerga Oinarria murrizten duten ekarpenetarako zerga-tratamendu onenaz balia zaitezke.

ZEURE
B
PLANA
BASKE
PENSIO
NES
BANAKAKO BGAEa
Kutxabank SA
Bazkide sustatzailea.
Kutxabank Gestión
IKESK SAU Ondare
Kudeatzailea.



PROBA EZAZU ERRETIRORAKO GURE SIMULAGAILUA.

Zure egoerari buruzko banakako txostena prestatuko dizugu. Simulagailuarekin zenbateko pentsioa kobratuko duzun, erretiroa hartutakoan bizimoduari eusteko zenbat aurreztu beharko duzun eta zure beharrianetara zein plan hobeto egokitzen zaizun kalkulatu ahal izango duzu.

Hasi etorkizuna planifikatzen,
Baskepensioneseekin:
SIMULAGAILUA